

'Gaurko menua' antzezlanak ikusgai izango da ostiralean Latxartegin

Legazpi » Dar-Dar produkzio etxearen helduentzako lehenengo antzerkia da ostiralean eskainiko dena.

A. AREIZAGA

Dar-Dar Produkzioak konpainiaren eskutik *Gaurko menua* antzerkia eskainiko da ostiralean Latxartegi aretoan. Emanaldia 22:30ean izango da eta sarrerak ohi bezala ordubete lehenago jarriko dituzte salgai leihatilan.

Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo aktoreek hartuko dituzte emaldiko aktore nagusien rolak, eta muntaiaren zuzendaritza Paco Montesén sevillarraren eskuetan egon da. Zortzi urte daramatza produkzio etxeak antzerkigintzan, eta oraingoan Legazpin eskainiko duten komedia euren ekotzitako sei lanetatik helduei zuzenduriko lehena da.

Sukaldeko istorioa

Taula gainean ageri diren objektu guztiak sukaldeko tresnak dira eta istorioa sukalde bateko eguneroko lanegunean kokatzen da. Pepik eta Txelok beren amets, atsekabe eta itxaropen ezak partekatzen dituzte, irribarre eta negar artean. Lehiaketa bat irabazteko aukera da bi sukaldariek euren egoeratik ateratzeko duten irtenbide bakarra, baina baita, aldi berean, euren galbidea ere. Hainbeste urte alferrik galtzeak dakarren frustrazioarekin eta amorruekin itzulerarik ez duen bidaiari ekingo diote antzezlanak irauten duen bitartean.

Marilia Samperen testuan oinarritzen da obra, eta Asier Zinkunegik egin du euskarazko egokitza-pena. *Gaurko menua* lanean gaurkotasan handiko gaitz jorratzen da, lanean eta bizitza gainplotazioa jasaten duten bi emakume baitira protagonistak. Ordu eta laurden iraungo duen emanaldiaren funtsa bi protagonisten arteko bihurtze betetako elkarriketa mamitsu izango da, eta komedia tonua du nagusiki, *gag* ugari tartekatuz bertan.



KUP taldea udazkeneko zikloan

URRETXU » Udazkeneko Musika Zikloaren barruan kalitate handiko emanaldia eskaini zuen KUP taldeak herenegun Urretxuko Tourseko Martin Deunaren elizan. Jende asko hurbildu zen Tolosako Abesbatzen

Nazioarteko Lehiaketan zurren zeresana emango duen koru horren emanaldia entzuteratzen. Bi zatitan banatu zuten saioa; batetik polifonia arloko kantuak eskaini zituzten eta bestetik folklore arlokoak. HITZA

Norteko trenbidea eraiki zuten garaiaz hitzaldia izango da etzi

Legazpi » Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza izango dira hitzaldia ematen etzi, 19:00etan, Brinkolako aretoan.

ALEX AREIZAGA

Norteko trenbidearen eraikuntza Goierri hitzaldia izango da etzi Brinkolako aretoan. Legazpi 400 urtez aske dinamikaren barruan kokatu dute hitzaldia, eta Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intzak eskainiko dute, *Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan* liburuen egileak (bi liburuki dira), hain zuzen ere. Bigarren zatia aurten argitaratu dute, eta bertan Otzaurtetik (Zegama) Igartzara (Beasain) arteko trenbide zatiaren eraikuntza lana aztertu dute. Ez da hori, hala ere, bailarako herrien gainean kaleratu duten lan bakarra: Zumarragan trenbideak izan duen eragi-



Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza Zumarragako udaletxean. I. LUZURIAGA

na jorratzen duen liburua, Lazkano jauregiko belaunaldien apunte historikoak jasotzen dituen edota Ataungo ogibide historikoen gainekoa ere kaleratu dituzte.

Aldaketak bailaran

Norteko trenbideak aldaketa handiak ekarri zion Goierriko bailarian. Industrializazioa garatzen la-

gundu zuen, Aranburu eta Intzak bildu dutenez. Otzaurte-Beasain zatiak Beasain-Irun zatiak baino diru kostu handiagoa izan zuen, nahiz eta kilometro gutxiago izan. Lur azpiko eraikuntza lanetan gaitzotutako eta zauritutako langileentzako lau ospitale eraiki ziren Goierri, eta saletxeetan bizi izan ziren langileak, Zegaman.

Laburrak

Guraso-tutore bilera Iparragirre institutuan

URRETXU » DBHko eta Batxilergoko guraso-tutore arteko bilera izango da gaur Joxe Mari Iparragirre Bigarren Hezkuntzako Institutuan, 18:30ean. Bilerara ioan ahal izateko autobus zerbitzua izango da 18:15ean, eta geldialdiak Zumarragako elizaren alboan eta Urretxuko Euskadiko Kutzaren parean egingo ditu.

Argazkilaritza ikastaroa emango dute euskaraz

LEGAZPI » Ostiralean amaituko da euskarazko argazkilaritza ikastaroan izena emateko epea. Azaroren 3tik 27ra bitartean iraungo du, eta astelehen, asteazken eta ostegunetan egingo dituzte saioak 19:00etatik 21:00etara. Kostua 50 eurokoa da.

Etkez etxeko iruzurrarekin adi ibiltzeko deia egin dute

LEGAZPI » Legazpiko Udaltzaingok jakitera eman duenez 50 inguruko gizon eta emakume talde bat etkez etxe igaro da beren burua udaleko langile gisa aurkeztuz. Etxebizitzetan pertsona helduak bakarrik zeudela ikustean, sinadura bat eta laguntza ekonomikoa eskatzen aritu dira. Udaletik jakitera eman dute euren zerbitzuek ez dutela inoiz modu horretan funtzionatu, eta iruzur edo maula horren aurrean kontuz ibiltzeko deia egin diete bizilagunei. Era berean, udaltzainek aditzera eman duteenez horrelako iruzurren bat jasanez gero euren gaitz edo Ertzaintzaren gaitzaren behar da.

GKNren euskara plana IMHren mintegian aztergai

LEGAZPI » Aurreko ostegunean Makina Erreminta Institutuak antolatuta enpresetako hizkuntza kudeaketa mintegia egin zen Elgoibarran. Bertan Legazpiko GKN enpresako ordezkarek hartu zuten parte, besteak beste enpresa horretan martxan dagoen euskara plana aurkezteko. 100 pertsona inguruk hartu zuten parte mintegian, eta GKNrekin batera beste hiru enpresak aurkeztu zituzten norbere euskara planak.

Goierriko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • goierri@goierrihitzak.info / Tel.: 943-16 00 56